

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4480

EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 28koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baitira 2017-2018ko ikasturtean HABEren euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei diru-laguntzak emateko prozedura eta baldintzak, eta dagokion deialdia egiten baita.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak sortu zuen Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE), helduen euskalduntzera zuzendua, ahalik eta euskal hiztun gehiena lortzeko helburua duena.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren bidez, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatu batzuen jarduera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik jasotzen duten finantzazioa arautu zen.

179/2003 Dekretuaren 17. artikulua dio HABEk ezar ditzakeela, osagarri gisa, bere aurrekontu-bitartekoen mugen barruan, beste diru-laguntza mota batzuk, dekretu horretan aipatzen diren modalitate eta euskarrietan edo homologatutako sistemen bitartez, euskalduntze-prozesuetan murgilduta dauden ikasleei zuzenduak, horien emaitza akademikoen arabera.

Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren bidez aldatuta, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzen ditu.

Era berean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2018-2020ko epealdirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen 2018ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bitartez, Hizkuntza Politika alorrean 7. helburu orokor bezala helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du, «47130 – euskara ikasleei zuzendutako diru-laguntzak» kodea duen ekintza-atalean.

Horrela, bada, ebazpen honen bitartez, HABEren mailak egiaztatu dituzten ikasleentzako diru-laguntzen aitortza egin eta horien baldintzak arautu nahi dira, maila baliokideren bat egiaztatu duten ikasleentzako diru-laguntzen deialdia egitearekin batera, 2018ko ekitaldi honi dagokiona.

Horregatik, aipatutako xedapenek eta HABEren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidaten eskumenez, eta hauetan ezarritakoarekin bat: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartuta; Diru-laguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea, aurrerantzean DLO), eta lege hori garatzen duen erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2003 Errege Dekretuak onartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Ebazpen honen xedea da euskaltegi publiko eta pribatu homologatuetako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei emateko diru-laguntzen baldintzak arautu eta aitortzeko prozedura onartzea, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatu batzuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duen uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 17. artikulua ezarritakoa garatuz.

2018ko irailaren 11, asteartea

2.– Ebazpen honen xede diren laguntzetarako, 2018. urtean 1.800.000 euro jarriko dira, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako dagoen partidaren kontura. Era honetan banatuko da kopuru hori:

- a) 1.650.000 euro, HABEren A1, A2, B1 eta B2 mailak edo baliokideak egiaztatu dituztenentzat.
- b) 150.000 euro, HABEren C1 eta C2 mailak edo baliokideak egiaztatu dituztenentzat.

Azpi-atal batetik bestera dirua pasatu ahal izango da, batean soberakinik egonda, bestean egini-eko eskariei erantzuteko behar adina diru ez badago. Hala ere, diru-kopuru hori eskari guztien beharrei ebazpen honen 6. artikuluan ezarritako irizpideen arabera erantzuteko behar bestekoa ez bada, hainbanatu egingo da zuzkidura ekonomikoa onuradunen artean, azpi-atal bakoitzeko emaitzak errespetatuz.

3.– Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, artikuluko honen 2. atalean ezarritako zenbateko osoa handitu ahal izango da a) azpi-atalari lehentasuna emanaz, baldin eta HABEren aurrekontuetan beste diru-laguntza batzuetarako aurrekontu-sailen izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskarien gaineko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Adierazitako aldatetaren berri HABEko zuzendariaren ebazpenaren bidez eman beharko da, eta EHAA-n argitaratu.

2. artikulua.– Onuradunak.

1.– Ebazpen honetan arautzen diren laguntzen onuradun izateko, ondorengo baldintza guztiak bete beharko dira, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean eta LGSren 13. artikuluan jasotakoaren arabera:

1) HABEren erregistroan euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu bezala sailkatutako batean matrikulatua egotea 2017ko martxoaren 17tik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian.

2) HABEko zuzendariaren ebazpenez deituta 2017. urteko bigarren ebaluazio-garaian edo bigarren azterketa-deialdian edo deialdi irekian, edo 2018. urteko ekainaren arteko ebaluazio-aldietan edo lehen azterketa-deialdian parte hartu eta dagokion maila gainditzea.

3) Zigor eta administrazioaren arloan diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoak barne direlarik, hain zuzen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik.

4) Diru-laguntzen Lege Orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. atalean aipatutako egoeretan ez egotea. Eta zehazki, zerga guztiak ordainduta edukitzea eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea, baita EAEko Administrazio Orokorrearekiko diru-laguntzak itzultzearen ondoriozko obligazioak ere ordainduta izatea.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean 50.3 artikuluan jasotakoaren arabera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartuta, deialdi honen organo kudeatzaileak eskatzaileen berriazko baimenik gabe egiaztatuko du, automatikoki, diru-laguntza eskatu dutenek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituztela.

Hala ere, eskaria egiten duenak baimena ematen ez badu, berak aurkeztu beharko ditu baldintza horiei dagozkien egiaztagiria.

2.– Halaber, diru-laguntza hauetarako eskubidea izango dute euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentroetako ikasleek ere, horretarako, artikuluko honen 1.1 eta 1.3 puntuetan zehaztutako eskakizunak betetzeaz gain eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren bidez aldatuta, HABEren euskara-maila batekin baliokideturako euskara-maila bat 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitartean (dagokion deialdiaren behin betiko zerrendak argitaratzen diren datoren arabera) egiaztatzeaz gain, ebazpen honen 3. artikuluan zehaztutakoaren araberrako eskaera egin behar dute.

3.– Diru-laguntzen deialdi honetatik at geldituko dira:

1) Herri Administrazioak finantzatuta eskolatu diren ikasleak.

2) Lehenagoko ikasturteren batean egiaztatutako maila bera edo beheagoko bat bakarrik egiaztatu dutenak.

3) Azken bi ikasturteetan (2016-2017ko eta 2017-2018ko ikasturteak), euskaltegi-tako matrikulazioaren kudeaketarako aplikazioaren arabera, euskaltegi edo autoikaskuntza zentroan egindako mailetatik beheagoko maila bat egiaztatu dutenak. Gainera, maila bat baino gehiago egin duten ikasleek egiaztatutako mailei dagozkien diru-laguntzak jasotzeko eskubidea baino ez dute izango.

3. artikulua.– Jarraibidea, agiriak eta eskariak aurkezteko epeak.

1.– Ebazpen honen 2. artikuluko 1. eta 2. puntuetan zehaztutako baldintza guztiak bete eta artikuluko bereko 3. puntuaren arabera baztertu ez diren ikasleek, diru-laguntza hauek eskuratu nahi izatera, pertsona fisikoak izanik, eskariak aurkezteko bi jarraibide hauetako bat erabil dezakete: bide elektronikoa edo aurrez aurreko aurkezpenarena.

1) Bide elektronikoa aukeratuz gero, eskariak eta horien osteko izapideak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa egingo dituzte, <https://euskadi.eus/dirulaguntza/2018/ikasleak/y22-izapide/eu/helbidearen-bitartez>, artikuluko honen 3.1 puntuan zehaztutakoaren arabera.

2) Aurrez aurreko aurkezpena aukeratuz gero, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa, https://euskadi.eus/dirulaguntza/2018/ikasleak/y22-izapide/eu/_helbidean, eskaria egiteko formularioa eskuragarri izango dute, eta artikuluko honen 3.2 puntuan zehaztutakoaren arabera bete ondoren Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuaren egoitzetako batean aurkeztu behar dute.

2.– Eskari bide elektronikoa bidez nahiz aurrez aurreko aurkezpenaren bidez egin ondoren, gainerako eginkizunak eta izapideak helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

3.– Jarraibidea.

1) Eskariaren aurkezpena bide elektronikoa erabiliz.

Eskariaren aurkezpena bide elektronikoa bidez egin ahal izateko, interesdunek, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa sartu eta sinadura elektronikoa txartela edo itsasontzien joko txartela erabiliz identifikatu ondoren, eskuragarri izango duten formularioan dagokien laguntza eskuratzeko duten aukera jakinaraziko zaie, HABE bideratutako egiaztatze-deialdiaren bitartez gaitasun-maila egiaztatu duten ikasleen kasuan.

Jakinarazpen horretan, gehienez eskura dezaketen laguntza adieraziko zaie (egiaztatutako HABEren euskara-mailak, azken bi ikasturteetan egindako mailak eta egiaztatutako maila bakoitzerako ezarritako gehieneko laguntza kopurua kontuan hartuta), betiere gutxitu daitekeena euskaltegi-tan edo autoikaskuntzarako zentroetan azken bi ikasturteetan ordaindutako kopuruari begira, beste administrazio publikoetatik jasotako laguntzei begira edo 1. artikuluan aurreikusitako

gehieneko kopurua eskaera guztiei aurre egitera heltzen ez delako gerta daitekeen hainbanaketari begira.

Era berean, laguntzaren zenbatekoa zehazteko beharrezkoak diren datuak jasoko dira formularioaren datu-orrian: ordaindutako matrikula-kopuruen eta beste administrazio publiko batzuetatik jasotako diru-laguntzen berri, aurreko artikulua 1.3 puntuan zehazten diren diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatearen aitortzea eta datuak konprobatzeko HABEren zuzendariari zuzendutako baimena; hauek guztiak erantzukizunpeko aitortzen bitartez adierazita. Halaber, diru-laguntza eskuratzeko bankuko kontuaren berri jasoko da bertan.

Eskaria aurkezteko prozedurak:

a) Egiten zaien proposamena bere osotasunean onartuz gero, eskuera jarriko zaien datuen bilketarako orria bete beharko dute eta, ondoren, sinadura elektronikoaren txartela edo itsasontzien jokoen txartela erabiliz, eskaria sinatuko dute. Edonola ere, ezarritako epea pasa eta ikasleak erantzunik eman ez badu, HABEk proposatutako aukerari uko egiten diola ulertuko da. Onartzen ez badu, edo ikasleak nahiago badu, diru-laguntza eskaera artikulua honen 3.1.b) puntuan ezarritako prozedurari jarraikiz egin ahal izango du.

b) Egiten zaien proposamena onartzen ez badute edo bestelako datuak edo HABEren euskarra-maila batekin baliokidetzeko agiri gehigarriak aurkeztu nahi badituzte, eskuera jarriko zaien datuen bilketarako orria bete eta erantsi nahi duten dokumentazioa edo egiaztatutako mailaren agiriaren kopia edo dagokion erakundeak egindako ziurtagiria PDF formatuan aurkeztu beharko dute eta, ondoren, sinadura elektronikoaren txartela edo itsasontzien jokoen txartela erabiliz, eskaria sinatuko dute.

c) Proposamenik egiten ez bazaie, eskuera jarriko zaien datuen bilketarako orria bete eta erantsi beharko duten dokumentazioa PDF formatuan aurkeztu beharko dute eta, ondoren, sinadura elektronikoaren txartela edo itsasontzien jokoen txartela erabiliz, eskaria sinatuko dute.

2) Eskariaren aurrez aurreko aurkezpena.

Eskariaren aurkezpena aurrez aurreko aukeraren bidez egin ahal izateko edo aurkezpen elektronikoaren aukeraren aldaketa eginez gero, interesdunek Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan sartu ondoren, eskuragarri izango dute bete beharreko formularioa eta bertan laguntzaren zenbatekoa zehazteko beharrezkoak diren datu guztiak idatzi beharko dituzte: datu pertsonalak, azken bi ikasturteetako euskaltegiak eta egindako mailak eta egiaztatutakoak, ordaindutako matrikulen diru-kopuruak eta beste administrazio publiko batzuetatik jasotako laguntzak; aurreko artikulua 1.3 puntuan zehazten diren diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatearen aitortzea eta datuak konprobatzeko HABEren zuzendari nagusiari zuzendutako baimena; hauek guztiak erantzukizunpeko aitortzen bitartez adierazita. Halaber, diru-laguntza eskuratzeko bankuko kontuaren berri jasoko da bertan.

Datu guztiak sartu ondoren, formularioa inprimatu ahal izango dute eta sinatu egingo dute. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu beharko dute eskaria (Bilbao, Kale Nagusia 85; Donostia, Andia kalea 13; Vitoria-Gasteiz, Ramiro de Maeztu kalea 10). Formularioarekin batera, bertan zehazten diren euskara maila egiaztatuen agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

4.– Eskariak aurkezteko epeak.

Kasu guztietan, interesdunek 2018ko irailaren 12tik urriaren 11ra bitarteko epea izango dute, biak barne, diru-laguntzaren eskaria egiteko.

5.– HABEren egitekoa izango da eskatzaileek euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan ordaindutako kopuruei buruzko datu-orrietan emandako datuak egiaztatzea.

4. artikulua.– Aurkeztutako eskariaren hutsuneak zuzentzea.

Ikasleak aurkeztutako eskarian agiriren bat falta bada, edo okerren bat badago, hala jakinaraziko zaio, eta hamar eguneko epea eman okerrak zuzen ditzan, eta, adieraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertu beharko dela. Horretarako, alde zuzeneko ebazpena emango da.

5. artikulua.– Diru-laguntzen organo kudeatzailea.

HABEko Kudeaketa Zerbitzuari dagokio, Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Ikuska-tzailetzaren bitartez, deialdi honetan aurreikusitako kudeaketa-lanak egitea.

6. artikulua.– Diru-laguntza esleitzeko eta neurtzeko irizpideak.

1.– Egiaztatu den maila bakoitzeko, jarraian zehazten den kopurua eskura dezake gehienez ikasleak:

a) HABEren A1 maila: 150 euro.

b) HABEren A2 maila: 200 euro.

c) HABEren B1 maila edo baliokidea: 550 euro.

d) HABEren B2. maila edo baliokidea: 500 euro.

e) HABEren C1 maila edo baliokidea: 150 euro.

f) HABEren C2 maila edo baliokidea: 100 euro.

2.– HABEren diru-laguntza hauek osorik eskuratzeko, ikasleak egoki egiaztatu beharko du 2016-2017ko eta 2017-2018ko ikasturteetan, egiaztapenaren aurretik hasitako ikastaroetako matrikuletan, beste horrenbeste ordaindu izana, hain zuzen ere, egiaztatutako mailetan. Hala egin ezean, ordaindutakoa izango da laguntzaren muga.

3.– Maila bakoitzerako ikasketak behin bakarrik lagunduko zaizkio diruz ikasleari. Era berean, maila bat egiaztatu ondorengo diru-laguntza zuzentzeko beharrezkoa izan den matrikularen zenbatekoa ez da konputatuko beste maila bat egiaztatu izanagatikoa laguntza zuzentzeko.

4.– Ebazpen honen 1. artikuluan aurreikusitako kopurua nahikoa ez bada aurreko puntuan eza-rritako irizpideen arabera kalkulaturako beharrei aurre egiteko, onuradunen artean hainbanatuko da diru-laguntza.

7. artikulua.– Ebazpena, jakinarazpena eta diru-laguntzaren ordainketa.

Deialdi honetan zehaztutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEko zuzendariak eskabideen gaineko ebazpenak emango ditu, eta interesdunei jakinaraziko Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren postontzi nagusian argitaratuta eta HABEren egoitzetako iragarki tauletan erantsita. Hau guztia, 2018ko abenduaren 20a baino lehen.

Era berean, emandako diru-laguntzen publikotasunari dagokionez, aipaturako ebazpenak HABEren web orrialdean argitaratuko dira.

Eskabideen ganean emandako ebazpenek ez dute bide administratiboa agortzen eta onuradunek horien kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Ebazpenaren jakinarazpena aurreikusitako epemugan jasotzen ez bada, onuradunek ulertu ahal izango dute beren eskabidea ezetsia izan dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 25. artikuluan zehaztutakoaren ondorioz.

Diru-laguntzen ebazpena emanda, diru-laguntza ordainketa bakarrean kitatuko da banku-transferentziaren bidez. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko diru-laguntza batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

8. artikulua.– Bateragarritasuna.

Emango den diru-laguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, eta, hala badagokio, edo ez da aldea ordainduko edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuko da.

HABEK eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin erkatzeko, betiere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

9. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

1.– Onuradunek, oro har, bete beharko dituzte azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasotakoak.

2.– Eta zehazki, ebazpen honetan araututako diru-laguntzen onuradunek beti izango dituzte honako betebeharrak hauek:

1) Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztatzeen mende eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzaren mende egon beharko du, deialdi honen bitartez eskuratu diren diru-laguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien menpe ere egon beharko du.

2) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak eskuratuz gero, horren berri eman beharko dio HABEri.

3) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin bada, horren berri eman beharko dio HABEri.

4) Horretaz gain, 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, ezarritako betebeharrak eta gaiari ezar dakizkiokkeen gainerako xedapenek ezarritako betebeharrak ere izango ditu.

10. artikulua.– Baldintzak aldatzea, arauak ez betetzea eta itzulketak.

Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzez gain, eta berauek ebatzi ondoren, kanpoko bestelako diru-laguntzak eskuratzeak horren berri HABEri ematea ekarriko du, baita erakunde honek

aurretiaz emandako diru-laguntzaren aldaketa egitea ere, betiere deialdi honen 8. artikuluan aurreikusitako gainfinantzaketarik ez izateko besteko proportzioan.

11. artikulua.– Datuen babesak.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak xedatutakoa eta datu pertsonalen babesari buruzko gainerako araudia betetzeko xedez, HABEK deialdi honek araututako diru-laguntzen eskarien bidez jasotako datuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2006ko uztailaren 27ko Aginduaren arabera araututako IKASLEAK izeneko fitxategi informatizatuan sartuko ditu, erakunde horrek dagokion diru-laguntzen programa kudeatu ahal izateko eta, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta udalek xede berberarekin izan ditzaketan datuekin erkatu ahal izateko, betiere deialdi honen 8. artikuluan jasotako bateragarritasuna bermatua izan dadin. Fitxategiaren titularitatea HABEren Zuzendaritzari dagokio. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko eta eramateko eskubideak, bai eta datuak tratatuak izateko muga ezartzeko eta haien aurka egiteko eskubidea ere, HABEren Zuzendaritza Nagusian gauzatu ahal izango dira (Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia). Datu horien tratamendu eta babesaren erregimena araudi honek ezarritakoa izango da. Interesduna ados egongo ez badago egindako datuen tratamenduarekin, datuen babesarako agintaritza eskudunera zuzendu ahal izango ditu erreklamazioak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan aurreikusi gabeko guztian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta aplikagarri izan daitezkeen gainerako arauak ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita izango ditu ondorioak.

Donostia, 2018ko abuztuaren 28a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

2018ko irailaren 11, asteartea

I. ERANSKINA

Ikasleen diru-laguntzak 2018 (Erref.: 1038701)

Egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen formularioa

DATU OROKORRAK**Instrukzio-organoari zuzendua:**

HABE, HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Nortasun-datuak:**Titularra**

Izena: _____

Lehen abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Identifikazio-dokumentua: _____

*Zenbakia: _____

Sexua

- Gizona
 Emakumea
 Beste sexu-identitate bat

Ordezkarria

Izena: _____

Lehen abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Identifikazio-dokumentua: _____

*Zenbakia: _____

Sexua

- Gizona
 Emakumea
 Beste sexu-identitate bat

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

- Elektronikoa: nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

Oharra: 10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzen ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

- Postala: atal honetan jarri duzun helbidera bidaliko dira

2018ko irailaren 11, asteartea

Helbidea:

- Estatua
 Beste herrialde bat

Posta kodea: _____

Lurralde historikoa/Erkidegoa/Probintzia: _____

Udalerrria: _____ Herria: _____

...Helbidea: _____ zk.: _____ sol.: _____ letra: _____

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa edo SMS bidezko aurretiazko abisu-sistema erabili nahi duzu?

- EZ: ez duzu jasoko abisurik, jakinarazpen edo komunikazioen bat bidaltzen zaizunean (elektroniko zein posta bidezkoa).
 BAI: abisu bat jasoko duzu, jakinarazpen edo komunikazioen bat bidaltzen zaizun bakoitzean (elektroniko zein posta bidezkoa).

Abisuetarako bidea

* Posta elektronikoa: _____ Telefono-zenbakia _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

- Euskara
 Gaztelania

Datu pertsonalen babesa(DPBL) [1]

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- **Izena:** IKASLEAK
- **Non araututa:** 2006ko uztailaren 27ko Agindua, Kultura sailburuarena, Kultura Saileko eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko (HABE) datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituenak.
- **Titularra:** HABE.
- **Helburua:** diru-laguntzen programa kudeatzea eta, diru-laguntzen arteko bateragarritasuna bermatzeko, datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta udalek helburu berbererako dituztenekin erkatzea.

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan honekin:

HABEren Zuzendaritza Nagusia.

Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia

[1] *Pertsona fisikoaren datu pertsonalen tratamendurako eta babeserako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez.*

2018ko irailaren 11, asteartea

IKASLEAREN DATUAK**Ikaslearen datuak harremanetarako**

- Estatua
 Iparraldea
 Atzerria

Probintzia: _____ Udalerria: _____
 ...Helbidea: _____

Harremanetarako telefonoak

...Telefono-zenbakia: _____ Telefono mugikorraren zenbakia: _____

Bankuaren datuak

...IBAN kontrola: _____ Erakundea: _____ Bulegoa: _____ KZ: _____

Kontu-zenbakia: _____

EGIAZTATUTAKO MAILAK**Egiaztatutako mailak**

Mailaren ondoan egiaztatutako titulua zehaztu

A1 MAILA _____
 A2 MAILA _____
 B1 MAILA _____
 B2 MAILA _____
 C1 MAILA _____
 C2 MAILA _____

ORDAINDUTAKO MATRIKULAK**Ordainketak**

Aitortzen dut kopuru hauek ordaindu ditudala matrikula kontzeptuan.

2017-2018

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2017-2018

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2017-2018

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2016-2017

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2016-2017

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2016-2017

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2018ko irailaren 11, asteartea

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Eskatzaileak aitortzen du:

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen aldetik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak «Beste diru-laguntzak» eranskinean zehaztu behar dituzu)

Beste diru-laguntzak

Xede eta helburu berarekin eskatutako beste diru-laguntzak

Erakundea: _____

Diru-laguntzaren kontzeptua: _____

Emandako zenbatekoa (eurotan): _____

Zehapen-adierazpenak

- Ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen administrazio-zehapen edo zehapen penalik.
- Ez du diru-laguntza publikoak jasotzeko ez gaitzen duen legezko debekurik, berariaz adierazita sexu-bereizkeriagatiko debekuak.
- Itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta ditu.

Baimenak

- Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendurako eta babeserako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, baimena ematen dio HABEri bere datuak HABEren IKASLEAK izeneko fitxategi informatizatueta sartzeko, erakunde honek, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoa izeneko azaroaren 25eko 29/1983 Legeak ematen dizkion ahalmenen arabera, dagokion diru-laguntzen programa burutu dezan eta, diru-laguntzen arteko bateragarritasuna bermatzeko, datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta udalek helburu berbererako dituztenekin erkatzeko.

Baimen hori berak bere oldez egina, era zehatzaz, alde zurretik jakinaren gainean egonda, zalantzarik gabea eta epe-mugarik gabekoa da eta erantzukizunpeko adierazpen honen bitartez ematen du. Era berean, honen bitartez ere, aipatutako araudian aurreikusitako sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak HABEren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean (Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia) gauzatu ahal izango dituela adierazten du.

Orokorrak

- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- Deklaratzen dut hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez

bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Konpromisozko adierazpena

- Eskatera hau egin ondoren, xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen aldetik beste diru-laguntzarik edo laguntzarik jasoz gero, HABEri horren berri ematea.

INSTRUKZIO-ORGANOAK OFIZIOZ KONPROBATZEA

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honetako instrukzio-organoak datu hauek konprobatuko ditu eskumena duen administrazioan:

- Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (EAEko Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia).
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diru-zaintza Nagusia (GSDN)).
- Espresuki aurka egiten diot prozedura honetako instrukzio-organoak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: onuradunak kontrakotasun espresua agertu badu, prozeduran eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.